

**IRAKASKUNTZAREN BERRIKUNTZAKO
PROIEKTUEN HAMABOSTGARREN DEIALDIA,
2023-2024 IKASTURTEA**

**IKASKETEN ANTOLAMENDUKO, IRAKASKUNTZAREN
BERRIKUNTZAKO ETA KALITATEKO
ERREKTOREORDETZA**

Deialdiaren aurkezpena eta helburua

Deustuko Unibertsitateak “persona askeak, herritar arduratsuak eta profesional onak” hezi nahi ditu aldi berean,” jakintzaren sustapenaren eta gizartearen eraldaketaren alde jarduteko behar diren ezaguera, balio eta trebetasunez hornituak”. Testuinguru horretan, hezkuntzako berrikuntza eta ikerketako prozesuei lotuta, irakaskuntzaren kalitatea hobetzea da Deustuko Unibertsitatearen ardatzetariko bat.

Esparru horren barruan, Deustuko Unibertsitateak sustatu nahi ditu irakasleek egin nahi dituzten ekimenak, batez ere, ikaslearen ikaskuntza autonomo, eraikitzaile eta sakona bideratzeko. Horretarako aurkeztu da Irakaskuntzaren Berrikuntzako Proiektuen XV. deialdia.

Deialdiaren asmoa hauxe da: Deustuko Unibertsitatean, 2023-2024 ikasturtean egin eta hurrengo atalean aipatzen diren lehenetsitako ildoetarikoren baten barruan, irakaskuntzaren berrikuntzako proiektu originalak babestea.

Lan-ildoak

Irakaskuntzaren berrikuntzako proiektuen XV. deialdian lehenetsiko diren esparruak ondorengoak dira:

A) BERRIKUNTZA PLANETAN ETA IRAKASKUNTZAN

- Diziplina eta diziplinarteko plangintza: maila, titulu edo arlo bereko irakasle taldeen araberako antzeko irakasgaien plangintza, ikasleen pentsaera eta jarduera eraldatzeari eta goi-mailako irakaskuntzako berariazko gaitasunak garatzeari begira.
- Irakasteko metodologiak: ikasleak ardatz hartzen dituen irakas-estrategien garapena, ikaskuntza aktiboa, eraikitzailea eta sakona sustatuko dutenak.
- Ikasleen autonomia eta jarduna sustatzea, ikasteko motibazio, gaitasun eta interes mota ugarien arreta hobetzeko eta ikaskuntzaren beraren autorregulaziorako.
- Ikaskuntzen ebaluazioa: gaitasunen araberako ebaluazioan arreta nagusia jarriko duten ebaluazio-estrategiak erabiltzea, eta ikaskuntzaren autorregulazioa sustatuko duen benetako ebaluazio desafiatazile, partekatu eta jasangarriaren ikuspegitik garatzea.
- Ikaskuntza inguru erakargarria sortzeko material didaktiko eta gailuen diseinua eta IKTen erabilera jasotzen duena.
- Adimen artifiziala txertatzea irakas-ikaskuntza inguruetan.

B) GJHak ETA ZEHARKAKO GAITASUNAK TXERTAITZEA UNIBERTSITATEKO IKASLEEN GOITIK BEHERAKO GARAPENERAKO

- GJHak ardatz hartzen dituzten ikaskuntza proiektuak, titulazio bereko edo titulazio desberdinetako irakasleek eginak, gaitasun eta trebetasun profesionali ekarpena egiten laguntzeko.
- DUko ikaskuntza ereduko zeharkako gaitasunen garapena ardatz hartzen duten ikaskuntza proiektuak.

C) IRAKAS-IKASKUNTZA BIKAINERAKO IKUSPEGI AKADEMIKOAREKIN GARATUTAKO PROIEKTUAK

- Garapenean ikuspegi akademikoa hartzen duten berrikuntza proiektuak: irakas-ikaskuntzako egoeren deskribapenean, ikerketan oinarritutako analisisian, ikerketak bermatutako hipotesiak formulatzean, estrategia arrazoituak diseinatzean eta emaitzen analisisian oinarritutako adierazleak.
- Goi-mailako hezkuntzan ikerrildo garrantzizkoekin lotzen diren proiektuak eta horien garapenean laguntzen dutenak.

- Diziplinako ikerketak: jakintzagaien irakaskuntzan eta/edo egoera problematikoen irakaskuntzan kontzeptuak aztertzen edo sakontzen dituzten proiektuak eta giltzarri edo atariko kontzeptuak identifikatzen eta botila-lepoak gainditzeko edota haiek ulertzeko eta transferentzia egiteko estrategiak diseinatzen dituztenak

Ildo horietatik aparte, fakultate eta zerbitzuetako langileei gonbidapena luzatzen zaie, beren zentroetako berrikuntzako arduradunekin elkarlanean aritu daitezzen eta fakultateko benetako beharrezaneiei eta erronkei erantzungo dieten proiektuak aurkezteko eta irakasle guztien arteko lana sustatzeko proiektu partekatuek, erakunde-mailako konpromisoa eta lanbideko praktiketako elkarteak eratu dituztenak.

Eskabideen aurkezpena

Proiektu eskabideetarako hiru inprimaki daude, bat lan-ildo bakoitzeko. Inprimakiok deialdiari atxikirik doaz eta helbide honetan ere aurkitu daitezke: www.innovaciondocente.deusto.es

Eskabide orriak bete eta Ikasketen Antolamenduko, Irakaskuntzaren Berrikuntzako eta Kalitateko Errektoreordetzara bidali beharko dira, Ikasketen Antolamenduko, Irakaskuntzaren Berrikuntzako eta Kalitateko errektoreordeari zuzenduta, helbide honetara: proyectos.innovacion.docente@deusto.es

Deialdiaren inguruko kontsultak posta elektronikoz egin ahal izango dira: proyectos.innovacion.docente@deusto.es.

Eskabideak jasotzeko azken eguna 2023ko ekainaren 5a izango da.

Proiektuak hautatzeko irizpideak

Proiektuak ebaluatzeko eta onartzeko irizpide hauek jarraituko dira.

IRIZPIDEAK	Puntuazioa (0-10)
Proposamenaren aplikazioan egokia, koherentea eta argia izatea	
<ul style="list-style-type: none"> • Testuingurua eta balioaren justifikazioa: proiektua testuinguruan kokatuko da, zein egoera, arazo eta/edo premiari erantzuten dion deskribatuko da eta, C proiektuentzako, erreferentziatzeko esparru teorikoa eta hipotesia ere aipatuko ditu. 	0-1
<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren helburuak: argiak (neurgarriak eta errealistak), zehatzak, esanguratsuak eta koherenteak ebaluazioko adierazleekin, eta proiektuaren helburuak lortu izana eta eragina begien bistan jartzen dutenak. 	0-2
<ul style="list-style-type: none"> • Garapena: metodologia eta lan-plana (faseak, jarduerak, kronograma) eta eskatu den aurrekontuaren justifikazio egokia eta zehatza. 	0-2
<ul style="list-style-type: none"> • Espero diren emaitzak eta eragina: irakaskuntzan, edukietan, ikasteko metodologietan, hezkuntzako baliabideetan eta materialetan, ebaluazio sisteman, irakasgaien koordinazioan egindako berariazko aldaketak, eta horrek ikasleen motibazioan eta ikaskuntzaren eta errendimendu akademikoaren hobekuntzan duen eragina. 	0-1
Proiektuaren bideragarritasuna, egokitasuna eta transferentzia.	

<ul style="list-style-type: none"> • Deialdian ezarritako lan-ildoekiko egokitasuna eta Deustuko Unibertsitateko misioan egiten duen ekarpena. 	0-1
<ul style="list-style-type: none"> • Jasangarritasun-maila proiektuaren denboran (irakaskuntzaren berrikuntzako praktika bukatutakoan, ezarpenak ez du aparteko ekarpen ekonomikorik eskatzen). 	0-1
<ul style="list-style-type: none"> • Diziplina arteko, sailen arteko eta/edo fakultateen arteko izaera. 	0-1
<ul style="list-style-type: none"> • Zein puntutaraino transferitu/egokitu daitekeen beste testuinguru batzuetara (graduak, arloak, irakasgaiak, etab.). 	0-1

Ebaluatzeko orduan baldintza berdinetan, lehenetsi egingo dira bi kide edo gehiagoren proiektuak.

Gainera, beharrezkoa izango da saileko zuzendariaren oniritzia eta zentroko arduradunaren aldeko eta lehenespeneke txostena izatea.

Deialdiaren ebazpena Ikasketen Antolamenduko, Irakaskuntzaren Berrikuntzako eta Kalitateko Errektoreordetzak emango du, 2023ko uztailean erdialdean, zeregin horretarako sortzen diren ebaluazio batzordeek emandako txostenak aintzat hartuta.

Proiektu bakoitza 4 kide osatutako Batzorde batek ebaluatuko du: Batzordea Irakaskuntzaren Berrikuntzako Unitateko 2 kide eta kanpoko bi kide osatuta egongo da. Independentzia siurtatzeko, batzordekideek ezin izango dituzte euren fakultateko proiektuak balioetsi..

Laguntza ekonomikoa eta erakunde aitorpena

Proiektu bakoitzari eman dakioken kopururik altuena 3.000 € izango da.

Ematen den diru-laguntzarekin hau egingo da:

- langileen kostua estali (aurkeztu den proiektuan irakasleak emango dituen orduen estimazioaren arabera)
- materiala erosi
- materiala egin
- proiektua garatzeko prestakuntza jarduerak egin, DUko Irakaskuntzaren Berrikuntzako Unitateak edo beste zerbitzu batzuek emango ez dituztenak, edota
- beharrezko beste baliabide batzuk, aurrekontuan zehaztu beharrekoak.

Deialdi honek ez du jasotzen biltzar, jardunaldi edo antzeko ekitaldietara joatea finantzatzen, ezta elkarte akademikoarentzat interesgarri izan daitezkeen artikuluak aldizkarietan argitaratzea ere.

Era berean, deialdi honek ez du aurreikusten langilerik kontratatzerik, baina bai proiektuko taldeari lagunduko dion/dien pertsona(k) egotea; pertsona horri/horiei kopuru bat eman ahal izango zaio/zaie, proiektuaren kargura. Kasu horretan, laguntzaileak faktura bat egin beharko du (ezin izango du DUko langilea izan, ezta sektore publikokoa ere). Alta emanda egon beharko du Ekonomia Jardueren gaineko Zergan.

Beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatu ahal izango zaie finantzazio osagarria. Gainera, aldi bereko beste deialdi batzuetara aurkeztu ahal izango da, deialdi honetako edukiaren zati batekin, finantzazioa osatzeko.

Proiektuen onarpena

Ikasketen Antolamenduko, Irakaskuntzaren Berrikuntzako eta Kalitateko Errektoreordetzak erabakiko du proiektuari laguntza eman eta zenbatekoa eman, proiektuaren interesa eta ezarritako irizpideak zein mailataraino betetzen dituen kontuan hartuta.

2023ko uztailaren 14an emango zaie, beranduen dela, proiektuen arduradunei laguntzaren onarpenari edo ukapenari buruzko ebazpena eta, onartua izanez gero, zenbateko laguntza emango zaien adierazi.

Aldeko ebazpena jasotzen dutenei jarraibide zehatzak emango zaizkie proiektua martxan jartzeko eta garatzeko. Eginkizun horretan, Ikasketen Antolamenduko, Irakaskuntzaren Berrikuntzako eta Kalitateko Errektoreordetzako batzordearen laguntza izango dute uneoro. Laguntza 2023-2024 ikasturteari dagokio, hau da, gastu guztiek egon beharko dute justifikatuta 2023ko irailaren 1etik 2024ko irailaren 30era bitartean, dagozkien fakturekin.

Emaitzak jakinaraztea eta konpromisoak

Aldeko ebaluazioa duten eta deialdian onartu diren proiektuen arduradunek proiektuaren azken memoria bat aurkeztu beharko dute 2024ko urriaren 30a baino lehen. Bertan agertu beharko da proiektuaren garapen eta betearazpenari buruzko informazio guztia.

Proiektuari buruz autoreek egiten dituzten argitalpen eta ondoriozko emaitzetan argi eta garbi adieraziko da DUko atxikipena eta deialdi honi lotuta dagoela.

DUk proiektuen emaitzen zabalkundea sustatzeko bideak proposatuko ditu eta Irakaskuntzaren Berrikuntzako Jardunaldian aurkeztuko dira, baita Irakaskuntzaren Berrikuntzako Unitateak dituen zabalkunde kanaletan ere.